

Espedientearen kodea: 2024ID340001

Espedientearen gaia: Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilerei buruzko udal ordenantza

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA IDATZI AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran duten parte-hartzea hobetzeko, arautegi-proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, hala uste badute, 2025eko urriaren 10 arte helaraz ditzakete galdetegi honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia, helbide elektroniko honen bidez: www.oiartzun.eus, edo Udaleko Erregistro Orokorrean (Done Eztebe plaza, 1).

Ekarpen horiek aztertu eta kontuan hartuko dira, hala badagokio.

EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:

Trafikoari eta zirkulazioari buruzko udal-ordenantza bat onartzeak, lehenik eta behin, udalerrri barruko bide eta espazio publikoen erabilera desberdinak harmonizatzeko beharri heldu nahi dio. Helburua da oinezkoen erabilera eta erabilera ludikoak ibilgailuen zirkulazio- eta aparkatze- erabilerekin modu orekatuan uztartzea, erabiltzaile guztientzako bide segurtasuna, mugikortasun eraginkorra eta trafikoaren arintasuna bermatuz, eta ingurumena zein espazio publiko eta pribatuaren osotasuna babestuz. Ordenantza, beraz, funtsezko tresna bihurtzen da erabilerak arautzeko eta haien bizikidetzak bakesua bermatzeko, mugak, baldintzak eta neurriak finkatuz oinezkoen, gidarien eta beste kolektibo batzuen

CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA REDACCIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

De conformidad con lo previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con el objetivo de mejorar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas, con carácter previo a la elaboración del proyecto de normativa, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

La ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en este cuestionario, hasta el día 10 de octubre de 2025, a través del siguiente buzón de correo electrónico: www.oiartzun.eus, o en el Registro General del Ayuntamiento (Plaza Done Eztebe, 1).

Dichas aportaciones serán estudiadas y tenidas en cuenta, en su caso.

LOS PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA:

La aprobación de una ordenanza municipal de tráfico y circulación pretende, en primer lugar, abordar la necesidad de armonizar los distintos usos de las vías y los espacios públicos dentro del término municipal. Se busca hacer compatibles, de forma equilibrada, el uso peatonal y lúdico y el de circulación rodada, el de estacionamiento, así como los usos deportivos y lúdicos, garantizando la seguridad vial para todos los usuarios, la movilidad eficiente y la fluidez del tráfico, y protegiendo tanto el medio ambiente como la integridad de los espacios públicos y privados. La ordenanza se convierte, así, en el instrumento esencial para regular los usos y garantizar su coexistencia pacífica, fijando limitaciones,

arteko gatazkak saihesteko, bereziki erabiltzaile zaurgarriei arreta emanez, hala nola desgaitasuna duten pertsonen eta ingurumen jasangarritasunari.

Bigarrenik, udal-ordenantzak trafikoaren garapen normalari eta bide-segurtasunari arriskua edo nahasmendua ekar diezaioketen portaerak edo egoerak kontrolatzeko eta desagerrarazteko erronkari erantzuten dio. Pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa zaintzeko, kontrolatzeko eta diziplinatzeko irizpideak eta prozedurak ezarri nahi dira, bai eta neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezartzeko ere, araudia betetzen ez bada: aparkatzeko tokiak arautzea, seinale akustikoak behar ez bezala erabiltzea, edo mugikortasuna oztopatzen edo zailtzen duten ibilgailuak ibilgetzea eta kentzea bezalako irtenbideak hartzea. Era berean, ordenantzak arau-hausteen tipifikazioa, zehapen proportzionatuak ezartzea eta, hala badagokio, kasu larrienerako edo errepikatuenetarako kautelazko neurri espezifikoak garatzea gaitu nahi du, interes orokorra zaintzeko beharrezkoak diren eraginkortasuna eta disuasioa ziurtatuz

ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA:

Ordenantzaren funtsezko alderdietako bat hiri-ingurunea eta biztanleen bizi-kalitatea babestea da, trafikoak eragindako ondorio negatiboak arinduz, hala nola zaratak, gasak eta beste kutsatzaile batzuk, bai eta espazio publikoa behar ez bezala okupatzea edo erabiltzea ere. Tokiko araudiak muga zehatzak ezarri behar ditu elementu horietarako, horien kontrola prozedura arin eta eraginkorren bidez arautu behar du, eta berehalako neurriak hartzea aurreikusi behar du akatsak konpontzeko edo arriskua dakarten elementuak kentzeko. Horrek guztiak hiri-eredu ordenatua, jasangarria, irisgarria eta inklusiboa sortzen laguntzen du, biztanleriaren eta hiri-garapenaren beraren behar aldakorretara egokitu, herritarren oinarritzko eskubideak babestuz eta hiri-espazioetako eguneroko bizikidetzara bermatuz.

Ordenantza hau emango da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak 25.2.g artikuluan udalari trafiko- eta zirkulazio-arloan ematen dion eskumenaren indarrez. Era berean, Oiartzungo udalerriko bideen zirkulazioaren eta erabileren egungo egoerara egokitu behar da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testuategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatzearen ondorioz.

condiciones y medidas para evitar conflictos entre peatones, conductores y otros colectivos, atendiendo especialmente a usuarios vulnerables como las personas con discapacidad y a la sostenibilidad ambiental.

En segundo lugar, la ordenanza municipal responde al reto que supone el control y la erradicación de comportamientos o situaciones que puedan suponer un peligro o una perturbación para el normal desarrollo del tráfico y la seguridad vial. Se pretenden establecer criterios y procedimientos para la vigilancia, el control y la disciplina del tránsito de personas y vehículos, y para la imposición de medidas correctoras y sancionadoras ante el incumplimiento de la normativa: desde la regulación de los lugares de estacionamiento, hasta el uso indebido de señales acústicas, o la adopción de soluciones como la inmovilización y retirada de vehículos que obstaculicen o dificulten la movilidad. Asimismo, la ordenanza pretende habilitar la tipificación de infracciones, el establecimiento de sanciones proporcionadas, y, en su caso, el desarrollo de medidas cautelares específicas para los casos más graves o reiterados, asegurando la eficacia y la disuasión necesarias para preservar el interés general.

LA NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN:

Un aspecto esencial de la ordenanza es su función de protección del entorno urbano y la calidad de vida de los habitantes, mitigando las consecuencias negativas derivadas del tráfico como emisiones de ruidos, gases y otros contaminantes, así como la ocupación o uso indebido del espacio público. La normativa local debe fijar límites concretos para estos elementos, regular su control mediante procedimientos ágiles y eficaces, y prever la adopción de medidas inmediatas para subsanar deficiencias o retirar elementos que representen un peligro. Todo ello contribuye a crear un modelo de ciudad ordenada, sostenible, accesible e inclusiva, adaptada a las necesidades cambiantes de la población y del propio desarrollo urbano, amparando los derechos fundamentales de los ciudadanos y garantizando la convivencia diaria en los espacios urbanos.

La Ordenanza se dictará en virtud de la competencia atribuida al municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, en su art. 25.2.g, así como por la necesidad de una adaptación a la situación actual del tráfico y usos de las vías del término municipal de Oiartzun derivado de la aplicación del Real Decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre de 2015 por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial.

ARAUAREN HELBURUAK.

Oiartzungo Udalerrian trafikoa eta zirkulazioa arautzea.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Aztergai dugun gaia ordenantzaz arautu behar da, pertsona multzo zehaztugabea duelako hartzaile, eta gerora eta ondoz ondo aplikatu daitekeelako.

Bestalde, ez dago alternatiba ez-erregulatzailerik; izan ere, lortu nahi diren helburuak honako hauen bitartez soilik lor daitezke: jarduketak aurreikusiz eta betebeharrak eta muga juridikoak ezarritik.

LOS OBJETIVOS DE LA NORMA:

Regular el tráfico y la circulación en el término municipal de Oiartzun.

LAS POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS:

La cuestión que nos ocupa procede ser regulada por ordenanza porque tiene como destinatarias a una pluralidad indeterminada de personas, es susceptible de ulteriores y sucesivas aplicaciones.

Por otro lado, no hay alternativas no regulatorias, puesto que los objetivos pretendidos únicamente pueden ser alcanzados mediante la previsión de actuaciones, imposición de deberes y limitaciones de orden jurídico.